LORENTXOREN BUKAERAKO GUTUNA

Kaixo, family!

Bizi gara? Gustura ibili zarete azken asteetan Beñat eta Iratiren familiarekin? Bai?

Baina, nik zuen familiak ezagutu nahi ditut!! Begira-begira: argazki marko bat egiteko materiala bidali dizuet.

Zuen lana erraza da: aukeratu etxean zuen familiakoak agertzen diren argazki bat eta ekarri hona. Argazki markorako aukeratu irudi pare bat eta, margotu ostean, sortu zuen argazki markoa.

Gero, gelakoei azaldu zeintzuk agertzen diren argazkian, zer diren, zein lanbide duten... Ozen-ozen kontatzen baduzue, agian, nik ere entzun ahal izango dut! Badaukat gogoa zuen familiak ezagutzeko.

Paaaaaaaaaaa!